

Quisiera ser alcalde Donostiyakua...

Gaia jarrita

Mikel Agoues



**Kursaalak
250 egun**

Doinua:

«Pello Joxepe»

**Izotz pusketak izaten dira
denak fresko mantentzeko,
Donostiako berotuentzat
freskagarrien antzeko,
ustez kultura kalitatean
guztientzat hobetzeko,
baina agian ez al zen izan
handinahiak asetzeko?**

Haurrak ondo zaindu beharra

AVAIM, Tratu Txarrak Jasotako Haurren Laguntzarako Euskal Elkarteak, 1990ean sortu zuen EAEko Ongizate Zerbitzuetako langile talde batek. Asmoa umeei babes ematea izan da beti, gobernuz kanpoko ikuspuntu batetik.

Ildo honetatik, gure helburuak honako hauek dira: EAEko umeen egoeraren berri izatea, haurren kontrako tratu txarrei buruzko ikerketak bultzatzea, langilei gogoetarako eta prestakuntzarako aukera ematea eta gizartean haur eta nerabeen eskubideekiko ardura zabaltea.

Hori dela eta, AVAIMeko kideok Donostiako alkate izango bagina, haurrak ondo zaintzeko kanpaina sustatuko genuke eskoletan. Kanpaina horretan haurrei azalduko litzaieke zer den ondo zaintzea. Era berean, beren iritziak jasoko genituzke, zer pentsatzen duten eta zer proposatzen duten beren bizi kalitatea

hobetzeko. Azken batean, haurrei Donostiako eguneroko bizitzan parte har dezaten aukera eman behar zaie.

Ikastetxe publiko eta pribatuetan eta ikastoletan gogoetarako guneak sortuko genituzke. Horretarako, lehendabizi heziketa materialea banatu beharko litzateke irakasleen artean. Irakasleek, ondoren, jokoen bidez, haurren eskubide eta beharrekin lotutako hainbat gai jorratuko lituzkete beraiekin: garbitasuna, elikadura, janzkera, oinetakoak, hezkuntza eta abar.

SUSANA HERNANDEZ
AVAIMeko kidea.



Argazkia: Imanol Olegi

1903ean sortua

Casa de Labores

Jostura eta tapizeriak
Artile eta hari-kontuetan
etxerik hoberenak

Elkano, 5 Tfnon: (943) 42 02 05 Donostia
GARBERA merkatalgunea • Tfnon.: (943) 398286